

# Lurra, lana, jana

- **Baserritar gehiago** elikagai gehiago eta hobek ekoizten.
- **Pertsona gehiago** bertoko kalitatezko elikagaiak kontsumitzen.

Larrabetzu bizimodua lurretik atera duen herria izan da duela gutxira arte. Nekazaritza jarduera horrek bere izaera, ohiturak eta paisaia baldintzatu ditu. Baina, geroz eta gutxiago, eta zaharragoak dira lurra lantzen dihardutenak.



## Zer egin nahi dugun?

- Larrabetzuko baserritar nagusien belaunaldiari egin duten lana merezi duten bezala aitortu.
- Landu gabeko lurra dutenen eta nekazaritzan jardun baina lurrik ez dutenen artean akordioak proposatu, Udaletxearen laguntzarekin.
- Geroz eta herritar gehiagok Larrabetzun era naturalean ekoizten diren kalitatezko elikagai gehiago kontsumitzea, baserritarrari zuzenean egindako erosketarekin edota tokiko merkataritzaren bitartez.
- Era horretan, lanpostu gehiago, osasuntsuago, iraunkorrago eta bere izaerari lotuago dagoen herria eraikitzea.



## Nola parte hartu proiektu kolektibo honetan?

- Landu gabeko lurrak izanda, nahiago baduzu hauek ekoizpenean eta zainduta egon daitezen.
- Lurretik bizi nahi baduzu, baina lurrik ez baduzu.
- Bertoko baserritarren sasoiko produktu ekologikoak lortu nahi badituzu.
- Komertzio bat edo ostalaritzako establezimendu bat baduzu eta bertoko produktu gehiago eskaini nahi baduzu.
- Zure hondakin organikoak baserritarrek batu eta konpostatu ditzaten nahi baduzu.

Programaren dokumentu osoa [www.larrabetzu.eus](http://www.larrabetzu.eus)-en irakur dezakezu.

Harremanetarako: [gurpide.elkartea@gmail.com](mailto:gurpide.elkartea@gmail.com) edo izena emon Angulerin

## Hitzaldia

Programaren aurkezpena:  
**'Lurra, lana, jana Larrabetzu'**  
Dokumentalaren aurrerapena gure baserritarren partehartzearekin.  
Maiatzak 13, ostirala, 19.00etan Angulerin.



Gurpide Elkarteak eta Larrabetzuko Udalak bultzatuta  
Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (FEADER)  
eta Eusko Jauriaritzak diruz lagunduta